

BIBLIAKO TESTUEN ITZULPENAK FRAI BARTOLOMEREN LANETAN

Lehen gogoeta:

Lanbidez itzulpen arloan ari naizenez, eta itzulpenari buruz hainbat irizpide izan ditugaririk bazterretan, aspaldidanik nuen zenbait idazle zaharren idazlanetan itzulita agertzen diren Bibliako testuei buruzko gogoeta batzuk egiteko asmoa.

Batetik, gaur egun hizkuntzen arteko harremanak hain es-tuak eta ugariak diren garai hauetan, ezinbestekoa dugulako noizbehinka itzulpen arloan burutzen dihardugun lanari buruz-ko hausnarketa egitea.

Bestetik, txikitatik harridura edo zirrara edota, batek daki, behar bada, jakinmina sortu izan didatelako pulpitoetan ari-tzen ziren ahots ederreko eta jario handiko hizlariak. Nohizean behin, gainera, ezezagun egiten zitzaigun hizkuntza batean zeuden idazki ospetsuetako esaldi borobilak botatzen zituzten indartsu eta patxadatu, esaten ari zirenari balio handiagoa emateko asmoz edo. Baliteke, inoizka, aurreko entzuleengan ahoak zabalik jartzearainoko harridura sortzeko izatea ere.

Geroago, ikasketa-jardueretan aurrera egin ahala, jakin izan nuen hizlari horiek bertsolariak sagordotegietan bezala edota gaur egun bertso-eskoletan egiten denaren antzera, "homileti-

ka" (sermoigintza edo sermoiak egiteko teknika) eta "erretorika" (jendaurrean egokiro hitz egiteko teknika) ikasten zituztela.

Beste zerbait izaten zen hain preziatutzat jotzen zen ahots indartsu eta ozena edukitzea. Hori ere beharrezkoa izaten zen bozgorailurik gabe elizako bazter guztietatik entzunak izatea lortzeko. Batzuk orroa galantak egiten zituzten, jakina! Jendeak, egia esan, gehienetan gogoz entzuten zituen elizako zoko guztiak dardaraka jartzen zituzten hitzaldiak.

Eta guzti horrez gainera, oroimen ona ere behar izaten zen sermolari izateko, paperik gabe ordu erdi, orubete edota ordu t'erdiko hitzaldi luzeak buruz egin behar izaten baitziren. Behin eta berriz entzun izan diot Abel Muniategi bertsozaleari, izugarrizko zirra sortzen ziotela antzinako hizlari haiek.

Urteak aurrera joan ahala, sermoigintzan zerbait ikasi behar, eta neuri ere jazo zitzaidan hitzaldi bat edo beste idatzi, buruz ikasi (ahalik eta ondoen hariak lotuz) eta jendearen aurrean bota beharra. Dena den, zorionez, beste garai batean, jakina, bozgorailuek eta elizako anboiek ahotsaz baliatzeko nahiz noizbehinka testu idatziari begiradatxo bat emateko aukera eskaintzen zigutenean.

Guk ere, arlo horretan lanean ibili izatean, gainerakoek bezala, oinarritzat Bibliako, santuen idazkietako eta Vatikanoko II.eko testu zatiak erabili beharra izaten genuen. Testu horiek, baina, gehienetan latinez edota gaztelaniaz eskuratzen genituen. Nola jokatu, baina? Latinez esatea alferrekoa zen, eta guk, bestalde, gaztelaniarik erabili gura ez! Norberak itzuli behar, bada, ahalik eta txukunen eta zehatzen. Hori zela eta, sarritan, bat-batean edota presaka egin beharraren ondorioz zenbait nabardura geratzen ziren ituli gabe ezkutuan. Zer esanik ez, neketsua gertatzen zitzaigun lan hori.

Eta zailtasun guzti horiek, mende honetan, hainbat lan-tresna esku artean izan ditugunean gertatu izan bazaizkigu, zernolako eragozpenak ez ote zituzten izango, euskaraz Bibliaren itzulpen osorik ez zutenean?

Kokapen historikoa

Frai Bartolomereren testuetan, egia esan, era askotako aipamen-atalak ageri zaizkigu. Ez, behar bada, hain idazlan luzeak eta oparoak izanik, guk uste adina. Ezin dugu esan, bestalde, halakorik aurkitzen bada ere, harrokeriaz edota handikeriaz entzuleak txunditzeko asmoz orrialdeak latinezko esaldiz zi-priztintzen ibili ohi zirenetarikoa zenik ere. Hala ere, nahikoa ditugu bere idazkietan ageri diren ataltxoak gure jakinmina hainbatean asetzeko, nahiz nola jokatzten zuten orduko hizlariak antzemateko.

Hori horrela, bada, Bibliaren euskarako itzulpenek izan duten historiari begirada egiten badiogu, lehen eta behin, frai Barlomen garaian (1768-1835) ez zuela eskura bizkaieraz argitaratutako itzulpenik esan behar dugu. Horrek bultzatu zuen halako testu-atalak bere erara euskaraz ematera.

Hala ere, bizkaierazko testurik izan ez arren, ezagutzen zuen Joannes Leizarragaren *Jesus Christ gure Iaunaren Testamentu berria*, egin-eginean ere, *Plauto Vascongado* deritzan bere idazlanean (1828, 79 orr.), "sortu" eta "jaino" hitzen arteko bereizketa defendatzerakoan itzulpen hartatik hartutako aipamen hau jasoten baitu: "*Eta Jacobec engendra zezan Ioseph Mariaren sénarra, ceinaganic iayo izan baita Jesus, ceini* [sic] *erraiten baita Christ*". (Mat. 1, 16)

Guzti hori horrela, huts egiteko arriskurik gabe frai Bartolomereren lanetan ageri diren Bibliako atalak latinetik berberak itzuliak izan zirela esan dezakegu, huts egiteko arriskurik gabe. Erabiliko zuen jatorriko testua, oster, inolazko dudarik gabe, "Vulgata" zeritzana izan zen, Bibliari buruzko ikerketak geroago etorri baitziren.

Hala ere, esan dezakegu ez zuela aparteko zailtasunik izango, garai hartan oso ondo menperatzen baitzuten latina komentuetan. Eguneroko eliz-otoitzak latinez egiteaz gainera, filosofia eta teologiako ikasketak ere latinez egin ohi ziren. Latinak, gainera, gaur egun ingelesak betetzen duen lekua edo

antzerakoa izan ohi zuen orduko mundu aurreratuan, nazioarteko hizkuntza nagusia baitzen.

Itzulpen mota

Orain dela urte batzuk euskarari administrazioan lekua egiten hasi ginenean, zenbait eztabaida zorrotz izan genuen itzulpenei buruz. Hainbatean gaur egun ere oraindik konpondu gabe jarraitzen dute arazoez, egin-eginean ere, itzulpenak egiterakoan zerk duen garrantzi handiagoa, jatorrizko testuari zehatz-mehatz lotuta egiteak ala euskararen senaren haritik egiteak eztabaidatu izan baita.

Geroago, eguneroko jardunak berez-berez irakatsita, nahikoa ongi ikasi izan dugu, itzulpen mota oso ugari daudela, eta beste hainbeste gertatzen dela itzulpen horien hartzaileak diren pertsonen dagokienean ere. Ez lukete, beraz, jatorrizko testuari zor zaion fideltasunak eta hizkuntz-jatoritasunak elkarren aurka egon behar.

Beraz, edozein itzulpen egiterakoan, ezin dugu hizkuntzaren zerik behinena, komunikatzeko tresna izatea dela ahaztu. Itzulpenak gure lanaren jasotzailea kontuan hartzea eskatzen digu, inork ulertu ezingo dituen testuak eskainiz, geure buruarekin bakarrizketa antzuetan egin nahi ez badugu, behinik behin.

Frai Bartolomek itzultako testu zatiak irakurri eta neurtzerakoan ere, gogoan izan beharko dugu, bada, esan berri dugun hori, bere asmo nagusia kristau mezua irakurle euskaldunari eskaintzea izan baitzen; horren ondorioz, kontua ez da izango, inolaz ere, itzulpen zehatzak egiten dituen ala ez aztertzea, liburu santuetan ageri den testuaren mezua ongi (bere kabuz aldatu gabe) eskaintzen digun ala ez ikustea baino.

Horrela, bada, honako hauek izan beharko ditugu aurrez aurre, beraren itzulpen atalak aztertzerakoan:

- a) Sarritan, zehatz-zehatz itzuli baino gehiago, testu zati baten esanahia handi-handika jasoten du, jatorrizko tes-

tua luzatuz nahiz laburtuz (gehienetan) edota testuan agiri ez diren zerak (egoerara egokitzeko edo ulergarriago egiteko) tartekatuz. Hain zuzen ere, hitzaldiak euskaraz egiteko erreztasunik ez zuten apaizei laguntza emateko asmoz.

- b) Era ezberdinetako aipamen kopuruari dagokionean, berriz, *Eleisaco zazpi sacramentuben icasquizunac* sortako lehen eta bigarren liburukietan, esaterako, aipamen ugari ageri dira. Hirugarrenean, aldiz, askozaz gutxiago. Oso jakintza maila zabala zuela ageri da, bestalde, aipamen horietan. Hainbat liburu irakurritako sermolari ageri zaigu.
- c) Latinezko testuen erabilerari dagokionez, hainbat esaldi ditu, oso laburrak badira ere. Hala ere, honetan gehiegi-keriarik gabe jokatzen du, beti ere garai haietan oso zabaldua zegoen latina erabiltzeko ohiturari uko egin gabe.
- d) Ortografiari eta hizkuntz ereduari dagokionean, gaurko irakurleoi, behar bada, hainbatean neketsua gertatuko zaigu; gainerako testuak bezala garai hartako ohiturei jarraituz euskaratuta agertzen zaizkigu atal horiek. Karmel aldizkariko ale honetan frai Bartolomeren lanen aurkezpena egiten dugunez, hari-harira etorriko zaizkigu Bibliako atal horiek, beraren idazkerara hurbiltzeko.
- e) Testu horietan, bestalde, gaur baztertu egingo genituzkeen hainbat erdal hitz ageri zaigula esan beharra dugu. Behar bada, gure egungo ikuspuntutz, zabarkeriaz jokatzen duela edo esango genuke. Bere asmoa, ostera, testuak ulergarriak egitea izan zen. Herriak zerabilen berbetearn antzeko euskara eskaintzen digu. Ezin dugu haztu era berean, hiztegi alorrean ere ez zutela gaur egun dugun oparotasunik.

Itzulpen horien nondik norakoak argiago ikusteko eta konparaketa egiteko frai Bartolomeren testuaren ondoan Jaime

Kerexetaren Bibliako bizkaierazko testua jartzen dut. Horrela, bien artean mende t' erdiko tartea dugularik, bizkaieraz emanak izan diren testuen arteko aldeak, idazketari dagozkionak nahiz euskara-motarenak, aurrez aurre ikusteko aukera izan dezagun. Honela, bide batez, euskarak ere mende bateko ibilbidean izan dituen aldaketez jabetzeko aukera ere izango dugu. Eliz liburuetaiko testu batuak erabil nitzakeen baina euskara batuago batean daudenez gehiago aldenduko nintzateke frai Bartolomeren bertsiotik.

Testuen aurkezpena

Aurreko gogoeta edo hausnarketen ostean, jo dezagun adibideak jarriz frai Bartolomek itzultitako Bibliako testu atalak aurkeztera. Zeintzuk diren frai Bartolomerenak eta zeintzuk Jaime Kerexetarenak berehala bereizteko, frai Bartolomerenak **letra etzanez** idatzita aurkezten dira beraren idazlanetan ageri diren bezala. Multzoka ordenatzen saiatu naiz, gorago aipatu ditugun nabardurak errazago ikusi ahal izateko.

1) Frai Bartolomeren eta Leizarragaren testuen konparaketa

Gorago aipatu dugu frai Bartolomek ezagutzen zuela Joannes Leizarragak 1571. urtean argitaratutako Bibliaren itzulpena. Horrela, harira etorri zitzaionean, bere arrazoien alde erabili zuen *Plauto Vascongado* liburuan. Ongi etorriko zaigu, bada Bartolomek eta Leizarragak itzultitako testu atal batzuk batera aurkeztea, bataren zein bestearen itzultzeko era begirada bakar batean ikusteko. Azpian, "Elizen arteko Bibliaren" eta "Jaime Kerexetaren" testuak jarriko ditut, lau bertsioko ikusteko abagunea eskainiz:

<p><i>Gose izan nitzan, ta ez ceunstan jaaten emon, esango deutsee Jesu Cristoc[.] Egarri izan nintzan, ta ez ceunstan edaaten emon. Bilosic ibili nitzan, ta ez ninduzun jantzi. Gaixoric egon nintzan, carcelaan egon nintzan, ta ez ninduzun vizitau. Zuaz bada, madaricatuboc, betico impernucio sutara. (Mt 25, 41-43)</i></p> <p>(Fraï Bartolome)</p>	<p><i>Orduan erranen draue ezquerrecoy -ere, Madaricatuac, parti çaiteste eneganic seculaco sura, deabruari eta haren aingueruëy preparaturic dauenera. Ecen gosse içan naiz, eta estrauchaue eman iatera: egarri içan naiz, eta estrauchaue eman edatera. Arroitz ninçen, eta eznauchaue recebitu: biluci, eta eznauchaue vesti-tu; eri eta presoindegutan, eta eznauchaue visitatu.</i></p> <p>(Leizarraga)</p>
<p><i>Alde nigandik, madarikatuok! Deabruarentzat eta aren aingueruentzat gertuta dagoan betiko sutara. Gose izan nintzan eta ez zeunsten jaten emon-eta; egarri nintzan, eta ez zeusten edaten emon; arrotz nintzan, eta ez nenduzuen etxean artu; billoizik nengoan, eta ez nenduzuen jantzi; geisorik eta giltzapean, eta ez zeusten ikustaldirik egin. (Mt. 25, 41-43)</i></p> <p>(Kerexeta)</p>	<p><i>"Gero, ezkerrekoei esango die: "Alde niregandik urruti, madarikuok, dabruarentzat eta haren lagunentzat prestatua dagoen betiko sutara. Gose bainintzen eta ez zenidaten jaten eman; egarri, eta edaten eman ez; arrotz, eta ez ninduen etxean hartu; biluzik eta ez ninduen jantzi; gaixo eta gartzelan, eta ez zineten ikustera etorri".</i></p> <p>(Elizen arteko Biblia)</p>
<p><i>Ez eguizu juramenturic eguin ezer gaiti bere, dino Espiritu Santubac. Ez Ceruba gaiti, Jaungoicuaren jarlecuba dalaco. Ez luurra gaiti, Jaungoicuaren oin lecuba dalaco. Ez Jerusalem gaiti, Erregue andijaren Ciudadia dalaco. Ez ceure buruba gaiti, ule zuritu bat ezin zinajalaco, ta ez da baltz, bat bere. Izan bitez ceuben verbaac: ez, edo bai. Onezaz gaineracua gacheric datorrena da, (Mt 5)</i></p> <p>(Bartolome)</p>	<p><i>Baina nic diotsuet ezteçacuen iura baitre, ez ceruaz, ecen laincoaren thronoa da. Ezeta Lurraz, ecen haren oinetaco alkia da: ezeta Ierusalemec, ecen regue handiaren ciuitatea da. Halaber eure buruaz eztuc iuraturen, ecen bilobat çhuri ezpa beltz ecin daidic. Baina biz çuen bitza bay, bay: ez, ez: eta bauçaz goiticoa, gaichtotic da".</i></p> <p>(Leizarraga)</p>

<p>Nik barriz auxe dirautsuet: Inñola be ez egin zinik, ez Zeruagaitik, Jaungoikoaren Errege-jarlekoa da-ta; ez Lurragaitik, Aren oinaz-pikoa da-ta; ez Jerusalem'gaitik, erre aundiaren Uria da-ta. Ezta zeure buruagaitik be ez egin zinik, zure ule bat bera be ezin zuritu edo baltzitu daikezu-ta. Zuen izkera "bai, bai, ez, ez" izan bedi; orren gainera, barriz, gaizta-keritik dator. (Mt.5, 34-37) (Kerexeta)</p>	<p>Nik, berriz, hau diotsuet: Ez egin inolako zinik, ez zeruarengatik Jainkoaren tronua baita; ez lurra-rengatik, haren oinaulkia baita; ezta Jerusalemengatik ere, Errege handiaren hiria baita. ez egin zinik zeure buruarengatik ere, ez baitezakezu zeure ile bakar bat ere zuri edo beltz bihur. Esan ezazue "bai" bai denean, eta "ez", ez denean; gainerakoa gaiz-toarengandik dator. (Elizen arteko Biblia)</p>
<p><i>Altaraan gagozala here, dino Jesu Cristoc, gogoratuten bajacu, proximuia asarre dala gueugaz, oprendia, edo esquintzarifa altara gainian icbita, proximuagaz baquia eguitemco leleengo. Au eguin, ta guero Jaungoicuac estimauco davela gueure oracinoia, edo oprendia,</i> (Bartolome)</p>	<p><i>Beraz baldin eure oblationea eramaiten baduc aldarera, eta ban orboit babadi ecen hire anayeac baduela cerbait hire contra, utzi eçac ban eure oblationea aldara aitzinean, eta babil: leben appointadi eure anayerequin, eta orduan etborriric prefenta eçac eure oblationea.</i> (Leizarraga)</p>
<p>Beraz, zure oparia altaran eskeintzean, eta zure anaiak zure aurka zerbait ba-daukala gogoratzen ba'dozu an, itzi egizu zure oparia an, altara-aurrean, eta zoaz leenengo zure anaiagaz adiskidetzera; gero, barrero etorrita, eskiñi egizu zure oparia. (Mt. 5, 23-24) (Kerexeta)</p>	<p>Beraz, aldarean zeure oparia eskaintzerakoan, zure senideak zure kontra zerbait baduela gogoratzen bazaizu, utzi oparia han, aldare aurrean, eta zoaz lehenbizi senidearekin bakeak egitera; itzuli gero zeure oparia eskaintzera. (Elizen arteko Biblia)</p>

b) Bertsio bikoitzak

Jarraian testu bera bi bertsiotan aurkeztuko dut. Bata, Frai Bartolomereren eskuizkribuan dakarrena da; eta bestea, argitaratuta ageri dena. Dударик gabe, argitaratutako testuari zuzenketak egin zizkion, ezkuizkribukoan datozen tokiko herri-berbe-tearen zenbait ñabardura kenduz. Azpimarratuta aurkezten di-

ra bi bertsioren arteko aldeak. Azpian Jaime Kerexetaren itzulpena jarri dut.

<p>"Nora juango nas ceure espiritu-baganic, ta nora igues eguingo dot ceure arpeguijaganic. Cerubetaraño(1) igoten badot, zu an zagoz; inpernubetaraño(2) jasten banas, an bere prest zagoz. Ego batzuc artuta(3), egun sentijan iragoten banas icbasuen esquinaraño(4), zure escubac an bere gueratuten nau(5). Pensau neban, menturaz illunac apartuco(6) nindubala zure aurretii(7), ta gavac ezcutauco nidubala zuganic(8); baina gavac egunac le-ze argui eguiten dotsu zuri(9); gava ta eguna bardin dira(10) zuretzaco."</p> <p>(Eskuizkribukoa)</p>	<p>¿Nora juango nas ceure espiritu-baganic, ta nora igues eguingo dot ceure arpegui santuti? Ceruraguino(1) igoten badot; ceu an zagoz. Impernuraguino(2) jasten banaz; an bere prest zagoz. Eguac artuta(3), iragoten banas egun sentijan icbasuen bazterreraguino(4); an bere ceure escubac euquico nau(5). Pensau neban, menturaz illunac alderatuco(6) nindubala ceu ganic(7), ta gavac ezcutauco nindubala ceure aurreti. Baina gavac argui eguiten deutsu, illunac leguez(8). (...) (9) Gava, ta eguna zuretzat bardinac dira(10).. (Ps. 139,7-12)</p> <p>(Argitaratua)</p>
---	---

Nora joango naz zure aserretik urrun? / nora iges egin zure begirakunetik?

Zerura igoten ba'naz, antxe zagoz Zu; / lurpean etzuten ba'naz antxe aurkitzen zaitut;

egunsentiaren ertzeragiño egaz egiten ba'dot, / bizi izatera itsas-ertzeragiño joaten ba'naz, antxe hartuko nau zure ezkerak, / antxe oratuko daust zure eskumeak.

"Illunak, beinepein, estaldu nagiala, / nire inguruan argia gau biurtu daitela" esaten ba' dot

illuna be ez da zuretzat illun, / eta gaba eguna baizen argitsu da. (Ps. 139, 7-12)

<p>"JesuCristo gueure Jauna, Jangoico, ta guizon eguijazcua ameeetan ez davena, izan della(1) madaricatuba, izan della(2) escomulgauba, izan della eternidade guztian(3)"</p> <p>(Eskuizkribukoa)</p>	<p>"Jesu Cristo, gueure Jauna, Jaungoico, ta guizon eguijazcua ameeetan ez davena, izan dedilla(1) madaricatuba, izan dedilla(2) escomulgauba, izan dedilla beti condenauba(3)". 1Ko 16</p> <p>(Argitaratua)</p>
---	--

"Jesukristo Jauna maite ez dagiana, madarikatua alako! "Maran atha" (Zatoz Jauna). (1 Kor 16, 22)

"*Ceubec parcatcen(1) ezpadeu-
tseezuz(2) vijotz guztijagaz(3)
arerijua i gach eguinac, neure
Aita Cerucuac zeubei bere ez
dotsuz(4) parcatuco pecatubac*"

(Eskuizkribukoa)

"Ceubec *parcatuten(1) ez ba-
deutsazu(2) (...)(3) arerijuari*
gach eguing; neure Aita
C...mac *ceubei* bere ez *deu-
ts...ez* parcatuco ceubeen peca-
tubac". (Mt. 6,14-15)

(Argitaratua)

"Izan be, gizonai euren iraiñak parkatu egiten ba'dautsezuez, zeruko zuen Aitak be zuen iraiñak parkatu egingo dautsuez; gizonai parkatzen ez ba'dautsezuez, ostera, zuen Aitak be ez dautsuez zuen iraiñak parkatuko" (Mt.6,14-15).

c) Handi-handika itzulita

Gorago esan dugu frai Bartolomek oso gutxitan eskaintzen duela itzulpen zehatzik. Gehienetan, Bibliako testuak zehazki-
ro itzultzen saiatu beharrean, aipatu baino ez ditu egiten, esa-
ten ari denari balio handiagoa edo sakonagoa eman nahirik.
Inoizka testuan ageri ez diren zerak ere tartekatzen ditu, han-
go mezua esku artean darabilenera egokitu nahirik.

Halako itzulpenen arriskua, baina, testuak norberaren zerbi-
tzutan erabiltzea izan ohi da. Eta, jakina, "zenbat buru hainbat
aburu" esaera zaharraren haritik, fidelgarritasuna galtzeko
arriskua. Era hau, gehienbat, testu luzeetan nabaritzen da.
Horrela ageri zaigu jarraiko atal hauetan:

*Ganadu aldriac leguez, urteten
davee pecatarijeen umiac soim-
bagaz; dantzán, ta saltoca da-
viltz soimubaren otsian; eureen
egunac iragoten ditubee alegue-
re, ta pozic, ta istante baten jaus-
ten dira impurnura. Et in puncto
ad inferna descendunt (Job 21
,11-13)*

Ardiai lez izten dautse euren
umeai ariñeketan egiten, eta
arein semeak oreiñak lez ekiten
dautse saltoka; arpaz eta zitaraz
abesten dabe, eta txirola-otsez
egiten dabe jolasean. Orrela
amaitzen dabe euren bizia, goza-
ro-goزارo, eta bakean jatsiten di-
ra illobira.

<p><i>Amauco docu zeure Jaun, eta Jangoicua vijotz guztijagaz, arima guztijagaz, ta gogo guztijagaz. Au da, zuri oan aguinduten dotsudana. Au berau eracutsico deutsezu ceure Semiai, eta semien semiai, ta berba oneec pen-sauco dituzu denpora guztietan, ta lecu guztietan.</i></p>	<p>Zure Jainko Jauna biotz-biotzez, zure arima guztiaz eta zure indar guztiaz izango dozu maite. Nik gaur emoten dautsudazan agindu guztiak idatzita geratu daitezela zure biotzean. Esan eta esan egingo dautsezuz zure semeai etxean eta bidean, ogerakoan eta jagitean; (Deut., 6, 4-7)</p>
<p><i>Otseguin zarianac, edo crijadu, edo crijada obeidu eguijeezu ceuben araguizco ugazaba, edo jaunai bildurragaz, ta icariagaz, vijotzeco humildade, ta zintzotasuntian, Jesu Cristori berari leguez. Ez aimbeste, euren ederra gaiti, ta eurac icusi zaguijzean, areen esanac eguinagaz. Ezbada Jesu Cristoren criadubac leguez. Jaungoicuaren vorondatia gogoz, ta vijotzeti eguinagaz.</i></p>	<p>Morroioak: aragi-eraz zuen ugazaba direnai, Kristo'ri legez, bildurrez, ikaraz eta biotz lauaz esana egiezue; gizonai atsegingarri izateko-edo, morroi-arazoak arein aurrean dozuezanean lez ez gero; Jaungoikoaren naia biotzez beteten daben Kristo'ren morroiak lez baino; morroi-lanari Jaunaren ederragaitik, ez gizonen ederragaitik, gogo onez ekiñik. (Ef. 5, 5-7)</p>
<p><i>Luurreco gauza guztien artian izango zara madaricatuba, emacumia engainauta, pecatu eraguin deutzazulaco. Luurra janda, tripiaren gainetian tatarasca ibilico zara. Baque gais-tua iminico dot zure, ta emacumiaren artian. Baita zure, ta aren ondorenguen artian bere. Emacumiac zapaldu, ta birrinduco deutsu ceure buruba. Ta zuc engaimubac, ta jausgarrifac iminico deutasuz aren orpuari (Has. 3, 14-15)</i></p>	<p>Orduan, Jainko Jaunak sugeari auxe esan eutsan: "Ori egin dozun ezkerro, madarikatua izango zara abere guztien artean, baita basoko pizti guztien artean be. Zeure sabel-gaiñean ibiliko zara narraz, eta zure bizitzako egun guztietan autsa jango dozu. Asarrea sortuko dot zure eta emakumearen artean zure ondorengoen eta aren ondorengoen artean; onek buruan emongo dautsu, eta zuk orpotik elduko dautsazu.</p>
<p><i>Siongo alabac ibili ziriala, euren burubac jasota, samaac armatuta, apainduta veguiracune maiteetan escubaquin chaloca, ta oinaquin dantzan. Alan ibili</i></p>	<p>Arro dagoz Sion'go alabak, burutente dabiz eta begi-kiñuka; oiñatz laburka eta oin-ustaez tilin-tilinka dabiz. Jaunak moztu egingo dautse buruko ulea Sion' go</p>

<p><i>dirialaco, Jaungoicuac quenduco deutseezala Siongo alabai eureen apaindurijaac, mutilduco deutseezala eureen burubac; ta emongo deutseela buruco apaindurijaren lecuban calva gorrija, loreen lecuban calva gorrija, loreen lecuban atsa, ta cinteen lecuban cordelac, ta cilicijua. (Isaias, 3, 16-23)(*)</i></p> <p>(*)Argi ikusten denez zeharo laburtuta ageri zaigu Isaiasen testu hau.</p>	<p>alabai, eta agirian itziko dauz arein lotsariak. Egun aretan Jaunak apaingarri guztiak kenduko dautsez: oiñetako uzta, buruko sare ta illargitxoak, belarritako, eskuturreko ta buru-zapiak, ule-estalki, katetxo ta gerrikoak, usaingarri-ontzi eta kutunak, atzamarretako ta sudurreko eraztunak, jantzi apain, soingaiñeko, sama-zapi ta diru-zorroak, liño-zoko ator eta gonak, buru-oiak eta txanoak. Eta ona eman zer izango daben: usaingarrien ordez, atsa izango da; gerrikoen ordez, lokarria; kopeten ordez, buru soilla; jantzi legunen ordez, zakua; eta edertasunaren ordez, lotsea. (Isaias, 3, 16-25)</p>
<p><i>Ez eguizu inor juzgau, dino Jesu Cristoc, zeubec juzgau ez zagizezan. ¡Oh, ceure laguna juzguetan dozuna! Achequija bagarik galduco zara. Inor gaitik eguiten dozun juzgu gaistuagaz, ceure buruba condenetan dozu.</i></p>	<p>Orregaitik, gizon, zarana zarala, zuribiderik ez dozu, besteak epaitzen dozuzan orrek; besteak epaitzean, zure burua ondatzen dozu-ta; epaitzen dozuna, bera, zeuk egiten dozun ezkerero. (Rom. 2,1)</p>

d) Zehazkiago itzulita

Beste zenbait kasutan, ostera, ordena ezberdina erabiliz bada ere, nahiko parekoak dira frai Bartolomek eta Kerexetak eskaintzen dizkiguten itzulpenak. Hau, gehienetan, testu laburretan gertatzen da. Halakoetan zehatzako jokatu ohi du frai Bartolomek, beti ere idazteko erari uko egin gabe. Atal hauek ditugu, behar bada, konparaketak egiteko egokienak:

<p><i>Ondrauco dituzu ceure Aita, ta Ama, luzaro vitzi zaitezana, ceure jaun, eta Jaungoicuac emongo deutsun luurrian (Exod. 20).</i></p>	<p>Aintzat hartu aita ta ama, zure Jainko Jaunak emongo dautsun luurrean luzaro bizi zaitezana. (Urt., 20, 12)</p>
---	--

<i>Zure anaiaren odolaren deijac diadar eguiten deust luurreti.</i> (Has. 4, 10)	Zure anaiaren odolak deadar egiten daust lurretik (Has. 4, 10)
Gorputza ill, baino besteric ezin deustunari, ez eguijozu bildurric euqui; baina bildur izan zaquijoz, gorputza ta arimia impurnura bota leguizuzan Jaungoicuari	<i>Gorputza ilten dabela, arimea ezin il daikenen bildurrik ez izan; arima ta gorputz su-lezara (impurnura) jaurti daikezanaren bildurrago izan zaiteze (Mt 10, 28)</i>
<i>"Zeubei entzuten deustunac, neuri entzuten deust, ta zubez desprecijetan zaitubanac, neu desprecijetan nau</i> (Lk 10).	Zuei entzuten daustuenak, neuri entzuten daust; eta zuek baztartzzen zaituenak, neu baztartzzen nau. (Lk. 10, 16)
<i>Errazago da, Camelu bat orratzaren zuloti iragoten, Codicijoso aberats bat ceruban sartuten baino.</i> Mt 19,24; Mk 10,25; Lk 18,25	Aberatsa Jaungoikoaren Erreñuan sartzea baino errazago da ganbelua jostorraz-zulotik sartzea" (Mt 19, 24; Mk 10, 25; Lk 18 25)
<i>Neuc aguinduten deustut amee-taco ceubeen arerijua; parcatuteco gaisqui eguin deustunari; Jaungoicuari erregututeco, ceu perseguiduten zaitubana gaiti, deungaro esan deustuna gaiti.</i>	Nik barriz entzuten dozueno i auxe dirautsuet: Maite egizuez zuen arerioak, on egieuez gorroto daustuenai, bedeinkatu egizuez madairkatzen zaituenak. Erregutu egizue txarto zarabillezenen alde (Lk. 6, 27-28; Mt. 5))

c) Latinezko esakuneak tartekatuta

Garai bateko sermolariek beraien hitzaldietan latinezko esakuneak tartekatzeko ohitura zutela aipatu dugu. Ohitura hori areagotu egiten da idatzizko lanetan. Frai Bartolomek ere erabiltzen du teknika hori. Inoizka, gainera, Bibliako itzulpenaren ondoan esanahiaren laburpena eskaini nahirik edota irakurlearengan aparteko arreta sortu nahirik. Hona hemen testuari erantsita (latinezko beste hainbat esakune ere baditu) ageri zaizkigun adibide batzuk:

<i>Ez dituzu euquilco ceure ebhian pisu bi, bata andijagua, ta bestia chiquijagua, edo arinagua. Ez da neurri bi bere. Bata andija-</i>	Ez dozu zorroan bitariko aztakinik (edo pisurik) eukiko: bata andia eta beste txikia. Ez dozu etxean bitariko negurririk izango;
---	--

<i>gua, ta bestia chibarragua. Non erit in domo tua modius major, et minor.</i> (Deut 25)	bata andia eta beste txikia. (Deut. 25, 13-14).
<i>Beste pruta guztietati jango dozu, esan eutsan Jaungoicuac Adani. Baina onaren, ta gacharen jaquitia dancan arbolari, ez deusazu prutia jango. Ta jaaten badeusazu, ari jaaten deusazunian, illgo zara In quoquumque die comederis ex eo, morte morieris.</i> (Has. 2,17)	Baratzeko edozein zugatzetik jan daikezu; baiña onaren eta txarraren jakintzako zugatzetik ez egizu jan; aretatik jan dagizun egunean zigur ilgo zara-ta. (Has. 2, 17)
Memento, ut diem sabbati sanctifices. <i>Acordau zaitetz, dino, "memento" edo gogouan euqui eguizu zapatuba santututia</i>	Izan egizu gogotan zapatu-eguna, santu egiteko (Urteera, 20, 8)
<i>Emacume dantzaarijaganic apartau zaitte, bere artiaz, ta encantubagaz galdu ez zaguzan. Ne forte peras in efficacia illius.</i> (Ecc1.92)	Ez izan artu-emonik bertsuak kantatzen dituan emakumegaz, eta ez zara aren agoan erreko (Sirak, 9,4)

f) Itzulpenei bizitasuna emanaz

Zer esanik ez, frai Bartolomek Bibliako atalak testu didaktiko baten barruan tartekatzean, bere irakatsiei sinegarritasuna eransteaz batera, behin baino gehiagotan bizitasuna eman nahi die irakurlearengan arreta piztu nahirik. Esaldi batzuk horrela erabiliz, jakina, askoz ere erakargarriago ageri zaizkigu.

Guzti hori, lehen aipatu dugun erretorikaren ondorioa izan daiteke. Halako kasu batzuetan zehaztasun gutxiago izan arren, askoz ere biziagoak ageri zaizkigu aipamenak. Hona hemen adibide batzuk:

<i>¿Nundi guerrac? ¿Nundi baque cbarrac? ¿Nundi auzijac,</i> dino Santiago Apostolubac, <i>ezbada ceuben gorputz zatijetan dagozan gurarijetati?</i> (c.4).	Nondik zuen artean orrenbeste gudu ta burruka? Ez ete-da zuen gorputz-ataletan burrukan diarduan zalekeriakaitik? (Sant. 4, 1)
---	--

<i>Inoc bere ez deutsa gaisqui gura bere gorputzari; ez deutsa inoc gacbic eguiten bere burubari. Bada senarrac bere ez deutsa guichiago gura izan biar bere emaztiari. (Paulo Ef.5)</i>	Inok ez dautso bein be bere aragiari gorratorik izaten; bai, ostera, azi eta zaindu, Kristo'k Eleizea lez, bere gorputzaren atal gara-ta..Senarrak be, orrelaxe izan bear dabez maite euren emazteak; euren gorputzak lez. (Efes. 5, 29, 28)
<i>Inoc etorri gura badau nire ondoric, artu begui bere Curutzia, ta jarraitu beiti. (Lk, 9)</i>	Nigaz etorri nai dagianak, bere burua ukatu ta bere gurutzea egunero artu dagiala, eta jarraitu daistala (Lk 9, 23)
<i>Jaungoicua amauco dozu, beste gauza guztiac baño gueijago; ta zure proximua, zeure buruba legez</i>	Zure Jaungoiko Jauna biotz-biotzez, arima guztiaz eta adimen osoaz izango dozu maite (...) Zure lagun-urkoa, zeure burua lez izango dozu maite (Mt. 22, 37-38)
<i>Dacutzunian pobre,] bilos, gose, otzac irago bat, zuc esan arren ari, zuaz Jaungoicuagaz, berotu zaitte, ta cerbait jan eguizu; ceurèti-ezer emoten ez badeutsazu: ¿Cer baijio deutsa pobriari zure ondo esanac? Eguitadiac dira gueure pediaren, ta caridadiaren testigubac</i>	Anai naiz arrebaren bat billoizik eta eguneko janari bagarik egon ezkeru, zuetariko norbaitek "zo-az bakean, berotu ta ase zaitetz" esan bai baiña gorputzak bear dauana emon ez ba'legio, ori zetakio litzakio on? Bardin sinismena be: egintzarik ez ba'dau, ilda dago beragan (Sant. 2, 15-17)-
<i>Ez deutsazu ceure lagunari, edo anaiari emongo ez diruba, ez laboria, ez beste gauzaric logrerijan(Deut. 23,20)</i>	Ez dautsazu zure anaiari dirurik irabazitan emongo: diru, janari edo sari-ordainez baituran emon oi dan beste edozer izan.

g) Itzulpenak testuan tartekatuta

Zenbait testu, hitzez hitz aipatuta eskaini beharrean, loturazko atzizki bidez testuinguruan bertako atal bezala txertatuta ageri zaizkigu frai Bartolomen idazlanetan, norberak baieztatu nahi duena eta Bibliako testuak dioena bat eginda eskainiz. Txertaketa hori egiteko gehien erabiltzen duen atzizkia **-a** konpletikoa da.

<p><i>Jaungoicuac ez davela inor tentetan: Bacocha bere gurarijac tentetan davela. Gurarijari gacba sortu daquijonian, pecatuba jaijoten dala: ta pecatu jaijuac betico erijotzia ermeetan davela. (Santiago, 5)</i></p>	<p>Arek ez dau inor be zirikatzen. Norberaren griña txarrak dira bakotxa zirikatzen, narrasten eta zorutzen dabenak. Gero griña txarrak, sortu ezkerro, pekatua dakar agitara; eta pekatuak, egin ezkerro, eriotza sortzen dau. (Sant. 1, 13-15)</p>
<p><i>Etorricio dala lapurraren ebera maldecinoia, ta ondatuco davela lapurraren echia, baita echiaren zurac, eta arrijac bere (Zakarias, 5,4)</i></p>	<p>Aiñen ori, lapurraren etxean eta nire izenaz guzurrez zin egiten dauanaren etxean sartu daiten bialdu dot; arein etxe-barruan bizi izango da, eta ezerezu egingo ditu ango abe ta orma guztiak</p>
<p><i>Guzurtijen amajja azuprezco laba gortija izango dala (Apocalip. 21)</i></p>	<p>...guzurti guztiak suzko ta azufrezko zingiran izango dabe euren arloa (Apok.21, 8)</p>
<p><i>Adisquide on bat topetan davena, dichosua dala... Adisquide on bat topau dabenac, ondasun andija topau davela. Ecer bere ez daguala, adisquide onaren halijocoric</i></p>	<p>Artu egizu adiskidetzat adiskide zintzoa; alakoa aurkitu dagianak, ondasuntogia aurkitzen dau; adiskide zintzoak ez dau aordainkuntzarik; aren balioa ezin daike inok ordaindu. (Sirak, 6, 14-15)</p>
<p><i>Leza andija, ta ondotsuba dala emacume loija, dino Salomec ta bere oinac elduten diriala impernuruino.</i></p>	<p>Leza sakona da emazte arrotzen agoa; Jaungoikoaz asarratuta dagoana, leza orretan jausiko da. (Esakunak, 22, 14)</p>
<p><i>Virginen ardura, ta contu guztia dala: celan Ceruco Esposuaren, Ceruco Erreguiaren, Jesus maitiaren natja eguingo daveen, gorputz, ta arima garbi, ta santu beti izateco.</i></p>	<p>Ezkondugabea, Jaunari dagokionaz arduratsu dabil, Jaunari zelan atsegin emongo (...) Emakume ezkondugabea ta neskea, Jaungoikoari dagokionaz dabil arduratsu, gorputz eta arimaz santu izateko. I Kor. 7,32, 34)</p>

h) Hamar aginduen itzulpena

Interesgarria iruditu zait frai Barolomeren idazkietako ardatz diren hamar aginduak nola ematen dizkigun itzulita jasotea.

Testu-atal hauek ere itzultzeko orduan ageri duen trebetasuna ematen digute aditzera. Ageri denez, agindu batzutan nahiko itzulpen zehatzak eskaintzen dizkigu. Beste batzuetan, ostera, nahikoa aldentzen da Jaime Kerexetaren itzulpenetik.

1a): *Neu nas ceure Jauna, ta Jangoicua, Egitoco cautiverifoti librau zaitudana. Ez dozu eu-quitco neu baño, beste Jangoicoric. Neu nas ceure Jangoico indartsuba, ta celotsuba.*

2a): *Ez dozu ceure Jangoicuaren Izen santuba premina bagaric auan artuco; edo, ez dozu juramentu bide bagaric egingo.*

3a): *Sei egunian biarra eguingo dozu, ta eguingo dituzu ceure cer eguinac. Zapigarren eguna cerue Jaungoikuaren zapatuba da. Ez dozu biarric egingo egun atan, ez ceuc, ez ceure semiac, ez ceure alabiac, ez ceure crijadubac, ez ceure crijadiak, ez da ceure echebarruban daguan alemanijac bere.*

4a): *Ondrau eizuz ceure Aita, ta Ama, izan daizun vizitza lucia Jangoicuac aguinduta dauan luurrian.*

5a): *Ez dozu inor ilgo.*

6a): *Ez dozu adulterifoco pecaturic egingo.*

7a): *Ez dozu ecer ostuco.*

8a): *Ez dozu projimuaren contra guzurric, edo testigantza paltso-ric esango.*

Ni Jauna naz, Ejipto'ko lurralde-
tik eta morroi-etxetik atara zaitu-
dan zureJaungoikoa. Ez dozu
izango nire aurrean beste jainko-
rik. Ni, zure Jainko Jaun au,
Jaungoiko neurekoia naz. (Deut.
5, 6)

Ez dozu alperrik agotan artuko
zure Jainko Jaunaren izena;
Jaunak ez dau zigortu bagarik
itziko bere izena alperrik darabi-
llenik. (Deut.5,11)

Jai egizu larunbata (...) Sei egu-
nez egingo dozu lan(...) zazpiga-
rren eguna, barriz, (...) zeure
Jainko Jaunari eskainia. Egun ho-
rretan ez dozu ezelako lanik
egingo, ez zuk, ez zure semeak,
ez zure alabak, ez zure morroiak,
ez zure neskameak, ez zure
idiak, ez zure astoak, ez zure
abereak (...) (Deut. 5,11-15)

Zure aitari ta amari lotsa izango
dautsezu, zure Jainko Jaunak
agindu dautsunez, zure Jainko
Jaunak emongo dautsun lurralde-
an bizitza luze ta zorionsua izan
dagizun. (Deut. 5,16)

Ez dozu inor ilgo (Deut. 5,17)

Ez dozu ezkontza loituko (Deut.
5,18)

Ez dozu lapurretarik egingo
(Deut. 5,19)

Ez dozu inoren aurka guzurrezko
testigutzarik egingo (Deut. 5,20)

9a): *Ez dozu profimuaren emazteric desiauco.*

10a): *Ez dozu inoren aciendaric desiauco.*

Ez dozu inoren emazterik gura izango (Deut. 5, 21)

Ez dozu... gura izango, inoren etxerik, ez landarik, ez morroirik, ez neskamerik, ez idirik, ez astorik, ez besterenik ezertxo be (Deut- 5, 21)

Amaitzeko, frai Bartolomeren itzulpenak (hemen Bibliako testuen atal batzuk baino ez ditut aurkeztu; bestelako hainbat baditu ere) era ezberdinean eginak ditugula esan behar. Orokorrean, nahiko ongi jasoten du liburu santuak ematen digun mezua, gero testuinguruan txertatzerakoan hainbait ñabardura gehitzen edota kentzen badu ere.

Lerro hauetan jaso ditudan atalak, frai Bartolomeren hizkuntz eredura hurbiltzeko bide ere izan ditugu. Horrela, zer esanik ez, askoz ere gogotsuago itxarongo dugu argitaratzeko bidean den bere idazlan guztien liburukia.

Patxi Uribarren